

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Berrizjolastu proiektua aurrera eramateko, hainbat baliabide behar ditugu. Baliabide hauek oso garrantzitsuak dira proiektuak ondo funtziona dezan eta arrakasta izan dezan. Baliabideak multzo desberdinetan banatzen dira: baliabide fisikoak, intelektualak eta giza baliabideak.

1. Baliabide fisikoak

Baliabide fisikoak dira ukitu edo ikusi daitezkeenak. Gure proiektuan, baliabide fisiko garrantzitsuenak hauek dira:

- Jostailuak jasotzeko kutxak, Juguettos dendetan jartzeko.
- Biltegi edo lokal txiki bat, non jostailuak gorde, garbitu eta konponduko ditugun.
- Laneko materialak, adibidez garbiketa produktuak, desinfekzio materiala eta tresna sinpleak jostailuak konpontzeko.
- Garraiorako ibilgailua edo garraio zerbitzu bat, jostailuak dendetatik gure lokalera eramateko.

Baliabide fisiko hauek gabe ezinezkoa izango litzateke jostailuak berrerabili eta berriro saltzea.

2. Baliabide intelektualak

Baliabide intelektualak ez dira ukigarriak, baina oso garrantzitsuak dira. Gure kasuan, hauek dira nagusiak:

- Berrizjolastu markaren izena eta irudia, jendeak erraz ezagutzeko.
- Proiektuaren ideia eta funtzionamendua, hau da, jostailuak bildu, berritu eta berriro erabiltzeko sistema.
- Ezagutza eta esperientzia, jostailuak nola garbitu, konpondu eta seguru bihurtu jakitea.
- Kontaktuen sarea, adibidez Juguettos, garraio enpresak eta beste elkarte batzuk.

3. Giza baliabideak

Giza baliabideak proiektuan lan egingo duten pertsonak dira. Haiek gabe proiektua ez da posible. Behar ditugun pertsonak hauek dira:

- Jostailuak jasotzeko eta sailkatzeko langileak.
- Garbiketa eta konponketa lanak egingo dituzten pertsonak.
- Bezeroekin harremanak izango dituzten langileak, dendan edo aurrez aurre arreta emateko.
- Sare sozialak eta komunikazioa kudeatuko dituen pertsona bat, proiektua ezagutarazteko.

Giza baliabideek konpromisoa eta gogoia izan behar dute, proiektua soziala eta ingurumenekoa delako.

Dirua hasieran inbertsio txiki batetik, Juguettosen laguntzatik eta jostailuen salmentatik lortuko dugu. Pixkanaka, proiektua bere kabuz mantentzea da helburua.